



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK**HE2
(C1 maila)****PROBA IDATZIA
2020ko irailaren 3a**

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

OHARRAK

1. Utzi Nortasun Agiria mahai gainean.
2. Egiatzatu azterketa-material guztiak dituzula: galdekizuna, erantzun-orria eta idazlanen orriak.
3. Idatzi zure kodea azalean, erantzun-orrian eta idazlanen orrietan.
4. Ez irten azterketatik arduradunek baimena eman arte.
5. Itzali telefonoa.
6. Entregatu azterketa-material guztiak irten aurretik.
7. Larrialdia gertatuko balitz, egin kasu arduradunen aginduei.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan luzea 3) Idazlan laburra
- Denbora: **3 ordu**.
- Proba honen emaitzak Interneten agertuko dira **irailaren 9an**:
(www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara).

IRAKURMENA

Sexua, zientziak ahaztutako aldagaia

Zergatik diagnostikatzen zaizkie berandu emakumeei bihotzeko gaixotasunak? Ba al dute gizonek osteoporosirik? Depresioa pairatzen duten gehienak emakumezkoak badira, zergatik ikertzen da eskuarki animalia arretan? 1991n Bernadine Healyk *The New England Journal of Medicine* aldizkarian idatzitako editorial batek hautsak **(1)** zituen, eta horretaz ohartarazteko bidea ireki zuen: sexu batean soilik egindako ikerketak ezin direla, besterik gabe, beste sexura **(2)**. Baina, oraindik ere, zelula, animalia edota pertsona **(3)** egiten du lan zientziak gehienetan, eta emeak amatasunaren eta menopausiaren gaineko ikerketetan soilik hartzen ditu kontuan.

Yentl sindromea ez da egiazko sindrome bat, bai fenomeno larria, ordea. Bernadine Healy medikuak, *The Yentl Syndrome* izenburupean, **(4)** zuen gaixotasun kardiobaskularren bat zuten emakumeek, sarritan, diagnosi eta tratamendu desegokiak jasotzen zituztela. Film bateko protagonistaren **(5)** jarri zion delako sindromeari *Yentl* izena. Filmean, *Talmud*-aren ikasketak egin nahi zituen *Yentl*-ek, juduen arau eta ohituren ikasketak, **(6)**. Baina, emakumea izaki, **(7)** zuen eskola hori, eta mozorroto, eta gizonezkoaren **(8)** eginez soilik lortu zuen gizonezkoen aukera bera edukitzea.

Zer zerikusi du film horrek gaixotasun kardiobaskularrekin? Bada, Bernardine Healyk lotura hau egin zuen: bihotzeko infartua izan zuten emakumeak alde aurretik **(9)** sentituta ospitalera joaten zirenean, osasun-profesionalek ez zuten **(10)** bihotzeko arazoa zenik, ez infartua gertatu arte behintzat. Izan ere, kardiologiako eskuliburuetan bihotzeko anginareneko sintoma tipiko gisara sailkatutakoak gizonekin soilik egindako ikerketetatik **(11)** ziren. Baina bihotz-zainen anatomia desberdina da gizon-emakumeetan, eta baita sintomak ere. **(12)**, emakumeen ohiko sintomak ez zuten beti irizpide kliniko tipikoekin bat egiten, eta diagnosis **(13)** egiten zuen horrek. Emakumeren batek gizonezkoen angina-min **(14)** adierazten bazuen, aldiz, erraz diagnostikatzen zioten bihotzeko angina. Horrela konparatzen ditu, beraz, Healyk filma eta ospitaleetako egoera. Haren esanetan, gizon-itxura hartzean **(15)** lortzen zuten emakumeek, bi kasuetan, behar **(16)** tratua —batean, gizon-arropak jantzi, eta, bestean, gizon-sintomak aurkeztuz—.

Editorial horren eskutik, bihotzeko anginareneko sexu-ezberdintasunak **(17)** joan dira. Angina-mina bihotzeko gutxiegitasun koronarioa dagoenean izaten da. Gizonetan, besoetara **(18)** daitekeen bularreko min edota presioaren sentipen modura deskribatu ohi da. Emakumeek ez dute beti angina-mina izaten bihotzeko infartu baten aurretik eta, pairatzen dutenetan, minaren **(19)** ezberdinak izan daitezke: bularreko **(20)** eta matrailezurrera, eztarrira edo bizkarraldera hedatzen den mina.

Hala ere, *Yentl* sindromeak bizirik dirau. Bihotzeko intzidentzia gizonetan handiagoa denez, gaixotasun maskulintzat hartzen da oraindik, ahaztu egiten baita bi sexu-etako **(21)** nagusia dela. Fenomeno eta hutsune horiek medio, bihotzeko gutxiegitasuna duten emakumeen **(22)** makurragoa da gaurko egunez. Izan ere, proba diagnostiko eta tratamenduak emakumeentzat ez dira gizonentzat bezain zehatzak, **(23)** esperimenduak, oro har, sexu arrarekin egin baitira. Zergatik arrekin soilik, baina?

Duela urte gutxi batzuk, uste zen **(24)** -sistemako zelulak soilik ezberdintzen zirela sexuaren arabera, gainerako zelula eta sistema biologikoak berdinduta zirela emakume **(25)** gizon izan. Gauzak horrela, esperimenduak arrekin egiteak nahikoa **(26)**, ziurtzat hartzen baitzen **(27)** ere emaitza berberak izango zirela. Orain, badakigu zelula orok duela bere jabearen sexua, eta ugalketa-sistemaz **(28)** ezberdintasun ugari dagoela. Adibidez, emeen immunitate-zelulek indartsuago erantzun dute bakterio baten aurrean, eta errazago ezabatuko dute. **(29)**, berezko immunitate-erreakzio handi horrek badu bere alde txarra ere. Artritisaren eta esklerosi anizkoitzaren moduko gaitz autoimmune gehiago dute emakumeek; gaixotasun horietan, defentsak norberaren gorputzari **(30)** diote. Emakumeek depresio-intzidentzia handiagoa izateak ere badu loturarik immunitate handi horrekin, defentsen etengabeko aktibitateak garuneko gune emozionalak **(31)** ditzakeela uste baita. Aldiz, minbizitza hiltzeko arriskua 1,6 bider handiagoa da gizonezkoetan. Azken horren zergatia ez badakigu ere, mekanismo antioxidatzaile ezberdinak eta immunitate-sisteman eta hormonetan dauden sexu-ezberdintasunak iradoki dituzte ikertzaileek.

Aurreko datuak ikusita, zaila da ulertzea zergatik ez diren egiten esperimenduak emekin ere. Baina, jarraian ikusiko dugun moduan, bada zientzia-komunitatean sakon **(32)** ideia bat, emeak esperimenduetatik baztertzea ekartzen duena, eta hilekoarekin du zerikusia. Zenbait ikertzaileren esanetan, ikerketetan emeak **(33)** esperimenduen metodologia korapilatu eta emaitza sendoak lortzea eragotziko luke, sagu emeak aldakorragoak baitira. **(34)** hori ziklo estralak —gizakion hilekoaren baliokidea— berezko dituen gorabehera hormonalei egotzi zaie. Ikerketen konplexutasuna **(35)** gain, emeak erabiltzeak esperimenduak garestituko lituzkeela ere iradoki da,

lanordu gehiago beharko ___(36)___ une oro ziklo estraleko zer fasetan dauden zehazteko, eta sagu eme asko erosi beharko liratekeelako zikloaren arabera taldekatzeko.

Aitzitik, 2014an AEBn arraza ezberdinetako saguak kontuan hartuz egindako analisi erraldoi batek erakutsi zuenez, emeak ez dira arrak baino ___(37)___; ez neurketa biologikoetan, ez eta jokabideari ___(38)___ ere. Bestela esanda, emeek hormonon ___(39)___ eta guzti izan dezaketen aldakortasuna ez da arren artean dagoena baino handiagoa. Azken ikerketa horrek ___(40)___ jarri du lehen funtsezkotzat jotzen zen ziklo estrala kontrolatzeko behar hori.

Ainitze Labaka Etxeberria. Elhuyar Zientzia.eus 2017/09/01 (moldatua)

Idatzi zure aukerak Erantzun-orrian. Erantzun-orrian markatzen dituzun aukerak bakarrik hartuko dira kontuan ariketa zuzentzeko.

1. a) bihurtu b) kendu c) barreiatu d) harrotu	2. a) orokortu b) biderkatu c) bidali d) alderatu	3. a) jakinekin b) helduekin c) arrekin d) ezberdinekin	4. a) jakin b) diagnostikatu c) ulertu d) salatu	5. a) gogoan b) omenez c) izenean d) alde
6. a) aukeran b) alegia c) hala hola d) adibidez	7. a) zapuztua b) onetsia c) emana d) galarazia	8. a) jarrerak b) keinuak c) plantak d) irudiak	9. a) ondoeza b) minbera c) jariora d) sormina	10. a) bereizten b) partekatzen c) gogoratzen d) antzematen
11. a) baztertuak b) eratorriak c) jatorriak d) asmatuak	12. a) Ezpada b) Hortaz c) Dena den d) Alabaina	13. a) nahasi b) azaldu c) aztertu d) zehaztu	14. a) bikoitza b) gogorra c) bertsua d) hertsia	15. a) besterik b) baizik c) baina d) bakarrik
16. a) bezalako b) besteko c) bezainbesteko d) gisako	17. a) tentuz b) argituz c) apalduz d) abailduz	18. a) etor b) zabal c) jalgi d) bereiz	19. a) emaitzak b) abantailak c) zertzeladak d) ezaugarriak	20. a) eztenkadak b) gorabeherak c) bultzadak d) taupadak
21. a) zio b) sintoma c) heriotza-kausak d) xede	22. a) eginkizuna b) pentsamendua c) pronostikoa d) ekimena	23. a) ordezkoez b) aurretiko c) sekulako d) ondoko	24. a) ikusmen b) arnas c) gorputz d) ugalketa	25. a) eta b) hala c) nahiz d) bai
26. a) balio zuen b) zirudien c) jotzen zuen d) zekarren	27. a) emeetan b) denetan c) haietan d) arretan	28. a) zeharreko b) bestaldeko c) gairdiko d) handiko	29. a) Bestalde b) Hortxe c) Beraz d) Ordez	30. a) bizkortzen b) heltzen c) eusten d) erasotzen
31. a) oztopatu b) kaltetu c) zaindu d) gabetu	32. a) ezagututako b) errotutako c) bildutako d) zuzendutako	33. a) banatzeak b) gehitzeak c) topatzeak d) erdiesteak	34. a) Nahigabe b) Fidagarritasun c) Aldakortasun d) Iraunkortasun	35. a) kentzeaz b) areagotzeaz c) samurtzeaz d) baztertzeaz
36. a) lukeelako b) direlako c) ziratekeelako d) liratekeelako	37. a) aldakorragoak b) gogorragoak c) irmoagoak d) egonkorragoak	38. a) eutsiz b) men eginez c) jarraituz d) dagokionez	39. a) gorabehera b) gorakada c) gora egin d) goragale	40. a) aldardean b) abian c) martxan d) ezbaian



A eredua

**HE2 PROBA IDATZIA
ERANTZUN-ORRIA**

Idatzi zure kodea:										
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IRAKURMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40

Idatzi zure kodea:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

30.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

40.....